

Euskal AEko biztanleria landuna 4.100 pertsonatan jaitsi da eta langabezia-tasa % 6,8ra igo da 2025eko hirugarren hiruhilekoan

Azken urtean 8.400 landun gehiago izan dira, eta langabezia-tasak 4 hamarren egin du behera, % 7,2tik % 6,8ra pasatuz

Eustaten datuak kontuan hartuz, Euskal AEko lan-merkatuko 2025eko hirugarren hiruhilekoko datuen arabera, 4.100 landun gutxiago eta 12.500 langabe gehiago daude aurreko hiruhilekoan baino. Langabeen kopurua 73.600ekoa dela kalkulatzen da, eta landunen kopurua 1.006.300ekoa, 2025eko hirugarren hiruhilekoan.

Euskal AEko langabezia-tasa % 6,8ra igo da, 2025eko bigarren hiruhilekoan baino 1,1 puntu gehiago. Biztanleria landunaren eta langabearen bilakaeraren ondorioz, jarduera-tasa —16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren gainean kalkulaturik— ehuneko 3 hamarren igo da aurreko hiruhilekoaren aldean, eta % 56,3n kokatu da 2025eko hirugarren hiruhilekoan.

insertamotion_860

Lurralde historikoen arabera, eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian 2.200 okupatu gutxiago daude, Araban 1.100 gutxiago eta Gipuzkoan 900 gutxiago. Hiriburuei dagokienez, Donostian 2.300 okupatu gutxiago daude, Bilbon 1.300 gutxiago eta Gasteizen 1.100 gutxiago.

Okupazioaren jaitsiera emakumeen artean gertatu da (4.200 landun gutxiago); gizonen artean, berriz, 100 igo da. Nazionalitateari dagokionez, Espainiako nazionalitatea duten landunak 3.300 gutxiago dira (–% 0,4), eta atzerriko nazionalitatea dutenak 800 gutxiago (–% 0,8).

Okupazioak behera egin du zerbitzuen sektorean eta eraikuntzan, eta gora lehen sektorean eta industrian

Euskal AEko biztanleria landuna 3.600 pertsonatan murriztu da zerbitzuen sektorean (–% 0,5), eta 1.400 pertsonatan eraikuntzan (–% 2,3). Aldiz, lehen sektorean 600 pertsona gehiago (% 6,5) eta industrian 300 gehiago (% 0,1) ari dira lanean.

Okupazio-tasa, 16 eta 64 urte bitarteko pertsona landunen ehunekoa adin horien guztizkoaren gainean kalkulaturik, ehuneko 0,7 puntu jaitsi da aurreko hiruhilekoaren aldean, eta % 71,2an kokatu da. Tasa hori % 74,1ekoa da gizonen artean eta % 68,4koa emakumeen artean, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 0,1 eta 1,2 puntu gutxiago, hurrenez hurren. Adinaren arabera, okupazio-tasa ehuneko 1,8 puntu jaitsi da 25-44 urtekoen artean, eta % 81,5ean kokatzen da. 45 urte eta gehiagoko pertsonen artean, ehuneko 7 hamarren jaitsi da, eta % 76,8an kokatzen da. 16-24 urteko gazteen artean, berriz, okupazio-tasa % 27,7tik % 29,2ra igo da, aurreko hiruhilekoan baino 1,5 puntu gainetik.

Nazionalitateari erreparaturik, okupazio-tasarik handiena Espainiako nazionalitatea duten pertsonen artean dago (% 73,3), baina ehuneko 6 hamarren jaitsi da aurreko hiruhilekoaren aldean. Atzerriko nazionalitatea duten pertsonen artean 9 hamarren jaitsi da eta % 56,9an kokatzen da.

Lurralde Historikoen arabera, okupazio-tasarik altuena Gipuzkoakoa da (% 72,7), aurreko hiruhilekoaren aldean ehuneko 0,7 puntu gutxiago; bigarren tokian Araba dago (% 71,9), ehuneko 0,8 puntu gutxiagorekin; azkenik, Bizkaian okupazio-tasa ehuneko 6 hamarren jaitsi da, % 70ean kokatuz.

Soldatapeko pertsonen kontratazio-modalitateari dagokionez, kontratu mugagabeak dituzten pertsonak 200 gehiago dira aurreko hiruhilekoaren aldean, eta aurreko urteko hirugarren hiruhilekoaren aldean 17.700 gehiago.

Hamar etxeetatik seik bertan bizi diren pertsona aktibo guztiak okupatuta dituzte

Kalkuluen arabera, 2025eko hirugarren hiruhilekoan 929.100 etxe inguru daude Euskal AEn. Horietatik heren batek ez du pertsona aktiborik, aurreko hiruhilekoan baino 2.300 etxe gehiago. Hamar etxetik ia seitan pertsona aktibo guztiak okupatuta daude, 12.200 familia gutxiago. Bestalde, pertsona aktibo guztiak langabezian dituzten familiak 21.600 dira, aurreko hiruhilekoan baino 3.000 gehiago.

2025eko hirugarren hiruhilekoan langabezia-tasa % 6,8koa izan da

Euskal AEko langabeen kopurua, hau da, lan bila ari diren, bilatzeko kudeaketa aktiboak egiten dituzten eta, gainera, lanerako prest dauden pertsonak 73.600 direla zenbatetsi da urteko hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino 12.500 gehiago. Emakumezko langabeak 38.100 dira, aurreko datuekin alderatuz 6.400 gehiago; gizonezko langabeak, berriz, 6.000 gehiago dira, hiruhilekoan 35.400 lagun izatera iritsiz.

2025eko hirugarren hiruhilekoko datuen arabera, langabezia-tasa % 6,8 da, aurreko hiruhilekoaren aldean ehuneko 1,1 puntu gehiago. Emakumeen artean langabezia-tasa ehuneko 1,2 puntu igo da, % 7,3an kokatuz, eta gizonena puntu 1 igo da, % 6,3an kokatuz. 16-24 urteko gazteen artean langabezia-tasa % 14koa da, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko puntu 1 eta 6 hamarren gaintetik.

Nazionalitateari dagokionez, 11.400 langabe gehiago daude Espainiako nazionalitatea duten pertsonen artean (guztira 55.900 langabe). Atzerriko nazionalitatea dutenen artean, berriz, 1.100 langabe gehiago daude (guztira 17.700 langabe).

Lurralde Historikoen arabera, Bizkaian 6.900 langabe gehiago daude (guztira, 44.300), eta langabezia-tasa ehuneko 1,2 puntu igo da, % 7,9ra iritsiz. Araban, langabeen kopuruak gora egin du 12.500 izatera helduz —3.400 gehiago—, eta langabezia-tasa % 7,5ekoa da, bigarren hiruhilekoan baino puntu 1 eta 9 hamarren gehiago. Gipuzkoan 2.100 langabe gehiago daude —guztira 16.700 langabe—, eta langabezia-tasa ehuneko 6 hamarren igo da, eta % 4,7ra iritsi da.

Hiriburuei dagokienez, Gasteizen 3.300 langabe gehiago daude, eta Donostian 200 gehiago; Bilbon, berriz, 600 langabe gutxiago daude, aurreko hiruhileko datuekin alderatuta.

EUROSTATen (Europar Batasuneko Estatistika Bulegoa) arabera, 2025eko abuztuan, Europar Batasuneko langabezia desestazionalizatuaren tasa % 5,9koa izan zen, eta Espainiakoa % 10,3koa.

2024ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, pertsona landunen kopurua 8.400 lagunetan igo da eta langabezia-tasa 4 hamarren jaitsi da

Azken urtean, 2024ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, landunen kopurua % 0,8 igo da, eta 8.400 pertsona gehiago daude lanean; horietatik, industrian 2.500 langile ari dira lanean, eraikuntzan eta zerbitzuen sektorean 2.400 eta nekazaritzan 1.000. Langabeei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoan 3.300 pertsonak utzi diote langabezia-egoeran egoteari, eta langabezia-tasa ehuneko 4 hamarren jaitsi da (% 7,2tik % 6,8ra).

Hiruhileko batez besteko afiliatuen % 96,4 okupatuta dago, LANEren irizpidearen arabera

Kalkuluen arabera, Euskal AEn 943.000 afiliatu daude hiruhileko batez bestekoan, hau da, Euskal AEn bizi direnak eta Gizarte Segurantzaz afiliatuak daudenak, hiruhilekoan lan egindako egun kopuruaren arabera haztatuta. Horietatik, % 96,4 okupatuta daude BJAk erabiltzen dituen Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) irizpideen arabera, hau da, 908.700 pertsona.

Lanaren Nazioarteko Erakundearen irizpidea kontuan hartuta BJAko okupatuaren artean 46.900 (% 4,7) ez daude Gizarte Segurantzaz afiliatuta, funtzionarioen mutualitate publikoetako kide direlako edo beste egoera batzuetan daudelako.

Langabeen % 39,3 ez dago erregistratuta langabe gisa

Kalkuluen arabera, Euskal AEn 85.800 langabe daude Lanbiden erregistratuta hiruhileko batez bestekoan, hau da, Euskal AEn bizi diren pertsonak, eta inkesta egin zen unean Lanbiden erregistratuta zeuden erregistratutako langabeziaren kategorietako batean. Horietatik, % 49,7 (42.600 pertsona) langabeak dira, LANEren definizioaren arabera. LANEren irizpidea kontuan hartuta BJAko langabeen artean, % 39,3 ez dago langabe gisa erregistratuta Lanbiden (28.900 pertsona), baina enplegu-eskatzailen beste kategoria batzuetan egon daiteke.

insertatabla_21154

insertatabla_21155

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62